


• MATTIN •

AYALAR KO ADISKIDEAK



Orain eta hemen

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI' •

[IDAZLEA]

A dos bide dira denak puntu batean: oso abagune historiko berezia bizi dugula azkeneko hilabete hauetan.

Baina urrats erraldoi dirdaitu batzuk egin ondoren, perlesiak jota antza, orain atzera lerratzeke arrisku nabarmena sumatzen dugu. Eta hau ere, denok aho batez sumatzen.

Gure herriaren arazoak denboran barrena, eta ondoko hilabetei edo urteei begira, zuhurki sailkatzeko behar gorria sumatzen dugu.

Orain eta hemen, zeri behar zaio lehenetsuna eman. Eta zer utzi behar da gerorako, garrantzitsua izan arren? Denboran barreneko hurrenkeraz mintzo gara hemen, ez garrantzi metafisikoz.

Kinka honetatik irteteko, estrategiaz mintzatu behar dugu, hitz batez.

Tentuz, kontuz, diskrezioz; berriro ere, zuhurki.

Baina, geure artean, ausarki ere bai. Azpijokoez eta ezkutukeriez bestaldetik abiatuz.

Hots, gaur eta hemen, eta Euskal Herriak mota guztietako espagnolistengandik jasaten duen eraso bortitza eta lotsagabea ikusita, ez zait bidezko iruditzen gure arteko (alegia, abertzaleon arteko) desberdintasunak azpimarratzeko une egokia.

Eta ondoko asteotan ere, jadanik aditzen diren zantzuei erreparatuta, berdintsu izango da; are desgokiago ere beharbada. Estatuekiko kontraesan nagusiak ez baitira batere jabalduko. Alderantziz baikiz.

Ez zait egoki iruditzen, garbiki, azkeneko hamarkadetan Europako (eta mundu guztiko) ezkerre zaitu eta mindu duen problematika, orain eta hemen, berriro geure ar-

tean piztea eta xaxatzea. Zauriak minbera daude oso oraindik; eta soluzioak, ilun.

Ezker sozialistak dituen arazok, ezin larriagoak dira.

Posible al da, ideologia monolitiko batez baliaturik, alderdi bakar batek («El Partido» esan izan da oraintsu arte ezkerrean; euskal eskuinean, hizkera berberaz, PNVaz ari, «El Partido» esaten zitzaion bezalaxe), sindikatu eta prentsa kolorebatar baten gainean ezarriarik, benetako Sozialismoa eraikitzea?

Ez da gaur bat ere eztabaida teorikoa. Zer erakutsi du horri buruz urte hauetako Kondairak? Ez gaude 1900ean; eta ezin dezakegu arazoa 1900ean bagina bezala planteatu.

Nola borroka eta mugatuko burkrazikeriak? Nola ezkonduko abertzaletasuna eta unibertsalismoa? Nork ukatuko galdera hauen garrantzia? Nola ukatuko, bide beretik, askotan haztamuka eta nekez aurkituko dugula bide egokia?

Hots, orain eta hemen, Frente franco-español anti-euskalduna gordinki indartzen den memento honetan, eta Euskal Herriaren azken hantsa itotzekotan ari direlarik, ezkerrean eztabaida teoriko amaigabe eta antzu horiek (eta eskarmentuz mintzo gara) gerorako utzi beharko lirakeke. Beste hamaika herritan gerorako utzi ziren bezala.

Orain eta hemen, behaztopa-harri guztien gainetik (eta ugari dire-

na badakigul), Lizarra-Garazi izpiritua behar da sendotu; abertzaleon arteko ekintza-batasuna egintan gauzatuz.

Oso bereziki, beraz, Euskal Herri osoko Udalbiltza behar da azkartu.

Nola, ordea? Funtsean, Udalbiltza bera, prozesuaren bultzatzaile nagusi eginez.

Horretarako, eta alderdi eta sindikatu abertzaleak eginkizunean bihotz osoaz murgil daitezten, meniaren (edo suetenaren, hitza berdina da) luzapena ezinbesteko baldintza dela dirudi.

Ene erantzuna: betor menia. Eta meniarekin batera, eta abiapuntu, eta Irlandakoa eredu, presoen etxeratzea finkatu eta bideratu behar da. Meniaren bigarren aurpegia baita hau. Menia eta presoen askapena batera datoz.

Udalbiltza zertan, artean? Bestetan ere emana dut neure iritzia: Auto-Determinaziorako prozesua bideratu eta gauzatzeko lanetan. Nola antolatuko behar da herri-kontsulta? Nola zedarrituko botoemileen zerrenda?

Goazen behingoz mamira. Eta ondoko erabakizunen mamia, hori da; eta ez besterik.

Etsaiak badaki. Horregatik nahi ditu, nola edo hala, Lizarra-Garazi eta Udalbiltza desegin. Eta gu Ajourria-Enera itzularazi.


«Del enemigo el consejo» esaten da gartzelaniaz.

Guk zer egingo, beraz?

Menia eta presoen askapena batera datoz. Udalbiltza zertan, artean? Auto-Determinaziorako prozesua bideratu eta gauzatzeko lanetan

ANTTON AZKARGORTA

Unibertsal konkretua



Grezia klasikotik hasi eta pentsalari garaikideenganaino etorrita, batez ere Kant-engandik igaro ostean, garai guztietako moralistek moral unibertsala sostengatzeko oinarri inpersonalen beharra azpimarratu dute. Lehen- goan, Durangon, J. A. Mari- nak ere bide horri jarraitu zion: etika unibertsal kontsentsuatua bi- latu behar da, eta gero diferentziak artikulatu.

J. M. Setienek bere aldetik, diferentzia eta ba- koiztasun kulturaletan oinarritutako etika proposatu zuen. Laburtuz, ala moral uniber- tsal kontsentsuatua (ahal bada legeetan bil- dua, diot nik), ala diferentzien etika, lokala, mugatua eta tokian tokikoa gainditu gabe.

Nire ustez, ordea, disjuntiba hori faltsua da. Praktikan ez dago inongo kontraesanik norbe- raren txokokeriaren eta moral unibertsalaren artean. Chévenement jaunak, agian nahi gabe, agerian jarri du diogun hau, berarentzat ar- buiagarria den hirugarren aukera sartuz. Ipar Euskal Herriko gazteez arituz, honakoa bota zuen, gutxi gorabehera: «La juventud debería pensar más en sí misma y en unos grandes ideales universales, en lugar de pensar en un nacionalismo étnico, regresivo y reaccionario». Benetako etika nire ustez egia-prozesu batekiko fideltasunean eraikitzen da, eta horregatik lo- kala izan behar da, nahitaez, baina, aldi bere- an, egoera konkretu hori gainditu egin behar du. Historikoki, komunismoaren ideiak man- tenduriko klase-borrokararen etika existitu izan da; bere subjektua langileria izan arren, klase- aren beraren berekoikeria gainditu eta huma- nitateari zuzendu zitzaion. Halaber, giza esku- bideen aldeko etika iraultzaile bat egon zen XVIII. mendearen amaieran eta frantsesa izan arren, mundu osora hedatu da.

Modu bertsuan, gure artean, Irlandan edo Txetxenian egoera konkretuen etika dago, he- rri mugimendu armatuetan gorpuztua, baina mundu osoari zuzendu dakiokkeen enuntzia- tuan laburtu daitekeena: munduko herri guz- tiek dute soberania eta autodeterminazioaren eskubidea, estatu zapaltzaileen kontra burru- katuz lortu beharrekoa. Horra hor unibertsal konkretua eta benetako etika.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Merezimenduak

■ Esanguratsua da EGUNKARIAK herenegun EAEko tele-ikusleez argitaratutako datuak (iruditzen zait beste euskal lurraldeetara ere esporta litekeela, hainbat izen aldatuz). Espainiako Tele-5 izan da ikusiena 1999an, TVE-1en aurretik, justuan. Antena-3 segidan dator, ETB-2 atzeraxeago izanik, baina txukun. Puska batera doa euskarazko katea, txirindularien arteko urketaria irudi. Bazen datu osagarriak: azken urteetako emanki- zun ikusienak Espainiako futbol selekzioa- ren hainbat partida izan dira. Makropolitika eztabaidak alde batera, non gauden erakus- teko baliagarria da. Ez ezkortasunetik, baina mitifikazioari ere hanka eginez. Ez dauka merezi dugun telebista; baina telebistak me- rezi dituen ikusleak dauka. Hori bai, denok ikusten dugu telebista jarrera hiperkritiko batetik, gudan inolako eraginik ez izateko moduan. Dударik gabe.